
**HERRI BARRUKO BIDEETAKO ERABILERA, TRAFIKOA ETA SEGURITATEA
ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA, TRAFIKO, MOTORDUN AUTOMOBILEN
ZIRKULAZIO ETA BIDE SEGURITATE ARLOETAN UDALAK DUEN ZEHATZEKO
AHALMENA ERE ERREGULATZEN DUENA**

Udalbatzarrak onartua 2002/10/07an

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. ESKUMENA

Ordenantza hau eman da lege hauek Trafiko eta Zirkulazio gaietan udalerriri esleitutako eskumenaren arabera: Toki Jaurbideari buruzko Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/85 Legea, eta martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretua, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duena, eta 19/2001 Legea.

2. Artikulua. Erregulatzeko xedea

1. Ordenantza hau erregulatzeko xedea da: trafikoari buruzko hiriko bideen erabilera, trafikoaren antolamendua, zaintza eta kontrola, arau hausteen salaketa eta santzioa, ibilgetzeko kautelazko neurriak hartzea, bide publikotik ibilgailua eramatea, ibilgailuak eta bertan behera utzitako ibilgailuak gordetzea.

2. Era berean, testu bakar batean pilatu nahi dira prozedura xedapenak, interes orokorrekoa den testu bat izateko.

3. Artikulua. Lurralde eremua

Arrasate udalerriko herri barruko bide guztietan aplikatuko dira Ordenantza honetako aginduak, martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretuan, 19/2001 Legean eta arauzko xedapenetan ezarritakoaren kalterik gabe.

4. Artikulua. Eskumenak

Eskumen hauek esleitzen zaizkio udalerriri, martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretua, motordun ibilgailuen trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duena, zati batean 19/2001 Legeak aldatua, haren 7. artikulua xedatzen duenarekin bat:

a) Bere titularitateko herri barruko bideetan trafikoa antolatu eta kontrolatzea, bai eta horiek zaintzea udaltzainen bidez, bide horietan gertatzen diren arau-hausteen salaketa eta horien santzioak, berariaz beste administrazio bati esleitzen ez zaizkionean.

b) Zirkulazioaren udal ordenantzaren bidez, herri barruko bideen erabilera erregulatzeko, eta bateragarri egitea aparkalekuak zuzen banatzea erabiltzaile guztien artean, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasunarekin eta kaleetako oinezkoen erabilerarekin, bai eta neurriak ezartzea ere, mugatua, aparkalekuak aldatzen joan daitezkeen bermatzeko, eta arreta

berezia jarriko zaie ezintasuna duten pertsonen beharrei, mugitzeko mugak dituztenei, hori guztia horien gizarteratzearen alde egiteko.

c) Ibilgailuak ibilgetzea herri barruko bideetan, denboraz mugatutako guneeetan aparkatzea gaitzen duen agiririk ez dutenean edo emandako baimena baino luzaroago dagoenean, gidaria nor den jakitea lortu arte.

d) Ibilgailuak eramatea herri barruko bideetatik eta gero horiek gordetzea, zirkulazioa oztopatu edo zailtzen dituztenean edo arriskua direnean zirkulatzeko, edo ez daudenean aparkatuta behar bezala aparkatze mugatuko guneeetan, artikulua honetan ibilgailuak ibilgetzeko aurreikusten diren baldintzetan.

e) Era berean, herriarteko bideetan ibilgailuak eramatea eta gero gordetzea, arauz zehazten diren kasuetan eta baldintzetan.

f) Kirol probak baimentzea, hirigunean baino ez direnean, zeharbideak izan ezik.

g) Probak egitea, arauz ezarritakoak, bide publikoetan zirkulatzen duten gidarien alkoholaren edo sorgogarrari psikotropikoen edo estimulatzaileen intoxikazio maila zehazteko, bide zirkulazioaren segurtasuna zaindu eta kontrolatu behar dituen bideetan.

h) Herri barruko bideak ixtea, hala behar denean.

5. Artikulua . Trafikoa antolatu eta kontrolatzeko neurriak.

Aurreko artikuluan adierazitako ahalmenen arabera, hauek egin ahal izango dituzte udala agintariek:

a) Trafikoa antolatzeko egoki iritzitako neurriak hartzea; ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa, zamalanak eta pertsonen edo merkantzien garraioa aldatu, murriztu edo debekatzea, eta horretarako behin-behingo behar diren seinaleak jarri edo kendu ahal izango ditu, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna lortzeko. Indarrean sartu baino 48 ordu lehenago jarriko da aldi baterako seinalea.

b) Aldi batez debekatzea ibilgailuak aparkatzea, konponketa, seinaleztatze, mantentze, garbiketa edo behar bezala baimendutako lanetarako hartu behar diren guneeetan.

c) Oinezkoen guneeak ezartzea. Hartarako, ibilgailuen aparkatzea edo estazionatzea, abiadura eta trafikoa erregulatu behar dituzten arauak emango ditu. (1. eranskina)

d) Herri sarreretan jarritako agindu seinaleek udalerrri osorako balio dute, kale zati baterako berariazko seinaleztapena izan ezik.

e) Udaltzainen seinaleak beste edozeinen gainetik daude.

f) Ezingo da jarri, kendu, eraman, ezkutatu edo aldatu seinalerik, udal baimenik gabe.

g) Udala agintarien iritziz interes publikoa duten informazio seinaleak baimendu ahal izango dira.

h) Ezingo da jarri publizitaterik, erabiltzaileei galarazi edo mugatzen badie semaforoak edo seinaleak normal ikustea.

i) Udalak kendu egingo ditu berehala baimenik ez duten seinaleak edo publizitatea, arduradunaren kontura kendu ere.

II. TITULUA

ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA

6. Artikulua – Lehentasunezko bideak.

1. Trafikoari dagokionez, lehentasunezko bidetzat hartuko dira, ibilgailu ugari dabilelako, ibilbideengatik, egoeragatik eta beste bide batzuekin duten komunikazioarengatik, hirigunean trafikoa banatzeko ezinbesteko egiten dituzten bideak.

2. Lehentasunezko bideak kale hauek izango dira:

- Gipuzkoa etorbidea.
- Garibai etorbidea.
- Araba etorbidea.
- Otalora etorbidea.
- Nafarroa etorbidea.
- Uribarri etorbidea.
- Zarugalde kalea 38tik Udala plazaraino.
- Takolotik Udala plazaraino.

3. Udalak, Alkatearen akordioaren bidez, aldatu edo handitu egin ahal izango ditu Ordenantza honetan lehentasunezko deklaraturako bideak.

7. Artikulua – Estazionatzeko debekua.

Ezin dira estazionatu bide publikoetan motordun ibilgailutik banaturako atoiak, autobusak, traktoreak, autokarabanak eta baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg-tik gora duten ibilgailuak, horretarako baimendutako gune, leku eta aldietan izan ezik edo zamalanak egiteko ez bada, ordutegi baimenduan.

8. Artikulua – Zirkulazioa mugatzea.

1. Orokortasunez, debekaturik dago ibiltzea hirigunean GPB 10.000 kg-ko pisutik gorako ibilgailuak edo luzeran 10 metro baino handiagoak direnak, 2,5 m zabaleran eta 3,5 m. altueran, errepide hauetan izan ezik: Arrasate-Aramaio errepidea, GI-2620 Gipuzkoa etorbidea eta Araba etorbidea lotzen dituen errepidea eta Arrasate-Elorrio GI-627 errepidea.

2. Murrizketa horietatik salbuetsita egongo dira linea erregularra izateko baimena duten autobusak edo udalerrian geralekua duten autobusak.

3. Kanpoan geratzen diren eremuetan, dagozkion seinaleak jarriko dira, murrizketa arau horien berri izateko gidariek.

4. Ezaugarriak, komunikazioak, egoera, egin beharreko lanak edo beste baldintza berezi batzuk direla eta, artikulua honetan adierazitako pisuak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuak bide horietan zirkulatzea baimendu ahal izango da salbuespenez.

5. Gorabehera horiek direla-eta bakarkako baimena emanaz gero, ibilgailuko gidariak, udaltzainekin elkarlanean, dagozkion neurri guztiak hartuko ditu gainerako erabiltzaileentzat edo bide publikoetan dauden ondasunetan arriskurik edo kalterik izan ez dadin bermatzeko. Edozelan ere, salbuespenez baimendutako zirkulaziotik sortzen diren kalte-ordainen erantzulea izango da baimenaren titularra.

6. Aurreko atalean erregulatutako baimenetan hauek agertuko dira:

- a) Baimenaren balio epealdia.

- b) Ibilgailuak egin beharko duen ibilbidea.
- c) Hartu beharko dituen segurtasun neurriak.
- d) Zirkulatu, maniobrak egin edo estazionatzea zein orduan egingo dituen.
- e) Bide publikoaren segurtasuna bermatzeko behar diren guztiak.

7. Ibilgailuek ezingo dute sortu zaratarik, hots seinaleak, bat-bateko azelerazioak, ihes tutu aldatu edo hondatuak edota antzeko beste gorabehera batzuk behar ez bezala erabiltzearen ondorioz.

8. Indarrean dauden zirkulazio eta seinaleztatze arauen berri jakin beharko dute bizikletariak eta ziklomotoreetako gidariak, eta zorrotz jarraituko dituzte seinaleak eta agintaritzaren agenteek adierazitakoak.

9. Patinak, monopatinak eta bizikletak edo haurren trizikloak espaloitik ibili ahal izango dira, baina oinezkoaren betiko abiadurara egokituko dira.

10. Debekaturik dago ibiltzea galtzadan patinez, monopatinez edo antzekoez.

11. Bizikletak galtzadatik dabiltzanean, eskumatik hurbil joango dira, ahalik eta hurbilen.

12. Debekaturik dago bidai lagunik garraiatzea bizikletan edo ziklomotorean.

9. Artikulua – Zamalanak.

Mugatutako guneeetan eta udalak hartarako ezarritako guneeetan egin beharko dira merkantzien zamalanak bide publikoetan.

Zamalanak egiteko gordetako guneeetan ibilgailu hauek baino ez dira ibiliko: merkantziako garraioetarako baino ez dabiltzan guztiak, eta hartarako gordetako guneeetan egingo dituzte lan horiek.

1. Zamalanak non egin eta zer orduan baimendu erabakiko ditu udalak.

2. Halako lanak egiten dituztenean baino ezin izango dute estazionatu ibilgailuek zamalanak egiteko guneeetan

3. Edozelan ere, zamalanak egin ahal izango dira orduetatik kanpo eta/edo baimendutako guneeetan, auzokideei eta bide publikoko gainerako erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez dietenean.

4. Zamalanak ezingo diral egin inoiz geratzea debekua den lekuetan.

5. Zamalanak kontu handiz egin beharko dira, behar ez den zaratarik ez ateratzeko.

6. Zamalanetako ibilgailutzat jotzen da, garraio txartelaren jabe den ibilgailua. Garraio txartela izan ez baina halako lanak egiten dabilen eta behar bezala identifikatuta eta errotulatu dagoen furgoneta txikia. Gremioek erabilitako ibilgailua, errotulaturik edo identifikaturik badago.

7. Ez dira zamalanak izango hauek: merkantzia banaketarekin zuzenean lotuta ez dauden lanak, bai eta erosketak, gestioak, e.a. modukoak banatzen direnean.

10. Artikulua – Gelditzea.

1. Gelditzea izango da ibilgailu bat ibilgetzea, bi minutu baino txikiagoa den aldi batez, pertsonak hartu edo lagatzeko edo zamalanak egiteko.

2. Guztiz debekaturik dago gelditzea:

2.1. Urgentziako ibilgailuentzat diren guneeetan.

- 2.2. Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.
- 2.3. Ezindu fisikoen pasabideko espaloia ertza ertzean edo haien gainean.
- 2.4. Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen guneeetan eta lorategietan.
- 2.5. Autobus eta taxien geralekuetan.
- 2.6. Martxaren kontrako noranzkoan.
- 2.7. Seinaleek debekua jartzen duten lekuetan, horizontal nahiz seinale bertikalek.

11. Artikulua – Aparkatzea edo estazionatzea.

Estazionatzea izango da gelditze egoeran ez dagoen ibilgailu bat ibilgetzea. Edozelan ere, gidariak ibilgailua aparkatu beharko du berez abian ez jartzeko moduan, ez eta beste pertsona batzuek mugitzeko moduan ere. Aipatu diren gorabeheretako batengatik egoera aldaketa baten ondorioz sor daitezkeen arau hausteen arduradunak izango dira gidariak.

Ezin da estazionatu ibilgailurik kasu hauetan:

- 1. Seinale bertikal nahiz horizontalak halaxe debekatzen duen lekuetan.
- 2. Gelditzea debekua den lekuetan.
- 3. Bigarren ilaran.
- 4. Martxaren kontrako noranzkoan.
- 5. Ibien aurrean.
- 6. Inmueble baterako sarbidea guztiz edo zati batean oztopatzen denean.
- 7. Zama-lanak egiteko gordetzen diren guneeetan, horiek erabiltzeko orduetan.
- 8. Ezindu fisikoek baino ez erabiltzeko seinaleztatutako guneeetan.
- 9. Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen guneeetan eta lorategietan.
- 10. Autobus eta taxi geltokietan.
- 11. Oinezkoen bideetan.
- 12. Urgentziako zerbitzuei gordetako guneeetan.
- 13. Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea galarazten dienean.

12. Artikulua – Abiadura

- 1. Hirigunean gehieneko abiadura baimendua 40 km ordukoa izango da, beste seinalerik ez badago beste noranzko batzuetan.
- 2. Oinezkoen guneeetan, baimendurik dagoenean, ibilgailuek moteldu egingo dute abiadura oinezkoak pasatzen direnean, gelditu ere egin arte, eta behar den arreta jarriko dute istripurik ez gertatzeko.

III. TITULUA

BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK ERAMAN ETA IBILGETZEA

13. Artikulua – Ibilgailua bidetik eramatea.

1. Beharturik dagoenak egiten ez badu, ibilgailua eraman ahal izango da bidetik eta agintari eskumendunak esaten duen lekuan gorde, kasu hauetan:

- a) Baldin eta arriskugarria bada, nahasmen larriak sortzen badizkie ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari edo ondare publikoa hondatzen badu eta hura bertan behera uztea arrazoizkotzat jo daitekeenean.

Arrazoizkotzat joko da bertan behera uztea kasu hauetan:

- Bi hil baino gehiago igaro direnean ibilgailua bide publikotik agintaritza eskumendunak eraman ondoren gordeta dagoenetik. Kasu horretan, bertan behera utzi izanaren zeinuak izan arren, matrikulazio plaka daukaten ibilgailuen kasuan edo titularraren izena erakusten duen beste edozein zeinu edo marka bistan daukaten ibilgailuen kasuan, epeak igaro eta gero, errekeritu egingo zaio pertsona horri, 15 eguneko epean gordailutik ibilgailua eraman dezan, eta adieraziko zaio hala egin ezean hiri hondakin solido moduan tratatuko dela.
 - Hil bat baino luzeagoan estazionatuta egonez gero leku berean eta akatsen ba duenean ezinezko egiten duena hura eramatea bere kabuz edo matrikulazio plakak faltan dituenen. Kasu horietan, hiri hondakin solidoaren tratamendua izango du, ingurumen araudiaren arabera.
- b) Martxa jarraitzea galarazten duen istripua denean.
 - c) Akatsak izateagatik ibilgetu denean automobila.
 - d) Ibilgailu bat ibilgeturik dagoenean arau-hauslea ohiko bizilaguna ez bada Estatuan eta ezetza eman ez gero isunaren zenbatekoaren ordainketa egin edo bermatzeko.
 - e) Udal agintaritzak ordu mugatuz estazionamendu moduan egokitutako lekuetan estazionaturik jarraitzen duenean ibilgailu batek, baimena ematen dion adierazgarria jarri barik, edo udal ordenantzan ezarritakoaren arabera, ordaindutako denbora baino bi bider gehiago pasatzen duenean.
 - f) Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bakarrik erreserbatutako erreietan edo bideetako zatietan estazionaturik jarraitzen duenean ibilgailuak.
 - g) Ibilgailua legez ibilgetuz hura ibilgetzeko leku egokirik ez dagoenean, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu barik.

2. Lapurreta denean edo titularraren borondatearen aurka ibilgailuaren beste erabilera era batzuk direnean izan ezik, behar bezala justifikaturik, titularraren kontura joango dira ibilgailua handik eramatearen ondorioz sortzen diren gastuak, eta ibilgailua itzuli aurretik baldintza moduan ordaindu egin beharko ditu gastuok edo horiek ordainduko dituela bermatuko du. Edozelan ere, eskubidea du errekurtsioa egiteko eta istripuaren, ibilgailua bertan behera uztearen edo ibilgailua eramatea ekarri duen arau-haustearen arduradunari egotzi ahal izango zaizkio gastuak.

14. Artikulua – Zirkulazioan eta zerbitzu publikoetako funtzionamenduan arriskuaren eta nahasmendu larriaren kasuak.

Aurreko artikuluan zehazten diren gorabeheretan sartuta egongo da ibilgailu bat, eta hortaz, hura eramatea justifikaturik dago, kasu hauetan, baina ez dute izaera exhaustiborik:

- a) Geratzea debekaturik dagoen leku batean dagoenean estazionaturik.
- b) Gidari barik bigarren ilaran dagoenean estazionaturik.
- c) Alaka baten edo ertz bateko angeluaren alboaren erpinetik ateratzen denean eta arriskua duten maniobrak egitera behartzen dituenen beste gidariak.
- d) Seinaleztatutako oinezkoen pasabide batean dagoenean estazionatuta, oinezkoen pasabiderako diren etxe uharteen muturrean edo ezindu fisikoentzako espaloien ertz batean.
- e) Ibi bat erabat edo zati batean hartzen duenean, hura erabiltzeko dagoen baimenaren orduetan.
- f) Zamanak egiteko den gune batean dagoenean geratuta eta/edo estazionatuta, erabilera orduetan, bidaiari/merkantziak kargatzen/deskargatzen aritu gabe.
- g) Garraio publikoko geraleku seinaleztatu eta mugatu batean dagoenean estazionaturik.
- h) Urgentzia edo segurtasuneko zerbitzuetarako erreserbatu dauden lekuetan dagoenean estazionaturik.
- i) Ikuskizun publikoetarako diren lokaletako larrialdietako irteeren aurrealdean daudenean estazionaturik, horiek egiten diren orduetan.
- j) Ezindu fisikoentzako erreserba batean dagoenean estazionaturik.
- k) Espaloi, nasa, babesleku, pasealeku, arreta gune batean erabat edo zati batean dagoenean estazionaturik.
- l) Trafiko seinaleak ikustea galarazten dienean bide publikoaren gainerako erabiltzaileei.
- m) Biratzea galarazten duenean edo hori egiteko maniobra arriskugarriak egitera behartzen duenean.
- n) Bide publiko bateko ikuspena oztopatzen dienean beste bide batetik datozen gidariei.
- o) Inmuble batera sartzea erabat edo zati batean galarazten duenean.
- p) Alkatetzaren bandoak "lehentasunezko" deklaraturako bidean, seinaleztaturik, debeku leku batean dagoenean estazionaturik.
- q) Galtzadan bertan dagoenean estazionaturik.
- r) Oinezkoen gune batean dagoenean estazionaturik, hark ezartzen dituen baldintzetatik kanpo, berariaz baimendurik ez badago.
- s) Aldi batez debekaturik dagoen gune batean dagoenean estazionaturik, Ordenantza honetako 5.c artikuluekin bat.

15. Artikulua – Titularrari jakinaraztea.

Bide publikotik ibilgailuak eramaten direnean titularra zein den jakin barik, 48 ordu igarota kendu zenetik eta inor agertu barik hura erreklamatzera, erregistroan titular moduan agertzen denari jakinaraziko zaio egoera hori.

16. Artikulua – Ibilgailuak ibilgetzeko kasuak.

1. Udaltzainek ibilgailua ibilgetu ahal izango dute, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen aginduak ez betetzearen ondorioz, hura erabiltzean arrisku larria sortuz gero zirkulaziorako, pertsonentzat edo ondasunetarako. Neurri hori berehala jasoko dute, neurria hartzeko arrazoirik ez dagoenean.

2. Era berean, ibilgailua ibilgetu ahal izango da, alkohol detekzioko probak egiteari uko egiten dionean gidariak edo substantzia sorgogarrrien edo antzekoen eraginaz dagoenean gidaria.

3. Halaber, ibilgailua ibilgetuko da, Espainian bizi ez den arau hausleak uko egiten dionean santzioaren zenbatekoa ordaintzeari edo hura ordainduko duela bermatzeari, 19/2001 Legeak aldatua, martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretuaren 67.1 artikuluan, 3. paragrafoa, xedatutakoaren arabera.

4. Zirkulaziorako arrisku larri bat sor daitekeela ulertuko da, kasu hauetan:

- a) Halako ibilgailuak gidatzeko gaitzen duen baimen administratiboa duela egiaztatzen ez duenean gidariak.
- b) Zirkulatzeko ibilgailuaren gaitasuna egiaztatzen ez denean, ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren bidez eta/edo Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartelaren bidez, edo ibilgailuaren nahitaezko aseguruia ez duenean.
- c) Ibilgailuak kalteak sortzen dituztenean galtzadan, zirkulatzeko ezinbesteko elementurik ez duelako, edo altuera, zabalera, pisua edo luzera larregi edo desegokia duelako, edo zama txarto jarri edo lotu duelako.
- d) Legez ezarritakoa baino alkohol tasa handiagoa duenean gidariak odolean, edo substantzia sorgogarri edo antzekoen eraginez dagoenean gidaria.

17. Artikulua - Itzultzea.

Bide publikoan ibilgailuak ibilgetu, gorde eta handik eramateko kasuetan eta prozedurez sortzen diren gatuen zenbatekoa partikularrari kobratuko dio udalak.

TITULO IV

BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK

18. Artikulua.

Ibilgailu bat bertan behera utzita dagoela kontsideratuko da, bi hil baino gehiagotan egonez gero estazionaturik bide publikoaren leku berean edo bere kabuz handik joatea ezinezkoa izanik akatsak dituelako, edo matrikulazio plakak falta baditu. Azken kasu horretan, hiri hondakin solidoaren tratamendua izango luke, ingurumeneko araudiaren arabera.

19. Artikulua.

Gorabehera horren berri emango zaio ibilgailuen erregistroan titular moduan agertzen denari edo benetako jabea denari, eta errekeritu egingo zaio 15 eguneko epean ibilgailuaz egiteko kargu eta bertan behera utzi ez dezan.

Hamabost egunak igarota, bertan behera utzita jarraituz gero, udal gordelekura eramango litzateke.

Titularren kontura doaz bertan behera utzitako ibilgailuak eramatearen ondorioz sortutako gatuak.

20. Artikulua.

Berariaz eta formaz jakinarazi eta gero titularrei ibilgailua eraman eta gorde dela, hilabetea baino gehiago igaroz gero neurri egokirik hartu barik horiekin arduratzeko, ibilgailu horiek hiri hondakin solidotzat joko dira.

21. Artikulua.

Gordetako ibilgailuen titularrak nortzuk diren ez badaki udalak edo non dauden ez badaki, horiek non dauden jakiteko gestioak egin eta gero lortzen ez bada non dauden jakitea, aurreko artikulua aipatzen duena honela jakinaraziko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez, eta titularren kontura joango da, agertuz gero horiek.

22. Artikulua

Titularrek ibilgailuak bertan behera uzteko borondatea agertzen dutenean berariaz, horiek zer-nola erabiliko dituen erabakiko du udalak.

23. Artikulua

Bertan behera utzitako ibilgailuak inorentzeko prozedurak ez du aldatuko titularren erantzukizuna horiek bertan behera uzteagatik edo titularitate horretatik lehendik sortutako obligazioengatik.

V. TITULUA

ISTRIPUAK ETA KALTEAK

24. Artikulua.

Istripu baten inplikaturik dauden bide erabiltzaileak, ikusi edo jakinez gero ezer istripuari buruz, beharturik daude laguntzen edo laguntza eskatzen biktimei laguntzeko, egonez gero biktimarik; beharturik daude laguntza ematen, kalte handiagorik ez izateko, ahal den neurrian zirkulazioaren segurtasuna berriro ezartzen eta beharturik dago gertakariak argitzen laguntzen.

25. Artikulua.

Istripu batean inplikaturik dagoen gidariak zer hauek beteko ditu:

1. Ahalik eta lasterren geratzea ibilgailua, zirkulazioan edo pertsonentzat arriskurik sortu gabe.
2. Ikusteko moduan seinaleztatzea istripua edo matxura bideko gainerako erabiltzaile guztientzat.
3. Agintzaritzako agenteei deitzea, itxura batean zauridunak edo hildakoak egonez gero.
4. Ahal den neurrian zirkulazioan segurtasuna mantendu edo berriro ezartzen saiatzea, agintzaritzako agenteak iritsi arte.
5. Zauridunei laguntzea.
6. Pertsonaren bat hil edo zauritu eginez gero, zirkulaziorako eta pertsonentzat arriskugarria ez bada, ez ditu gauzak lekuz aldatuko eta aztarnak ezabatuko, erantzukizunak zehazteko oso erabilgarriak izan daitezke eta.
7. Ez joan istripuaren lekutik, agintzaritzako agenteak iritsi arte.
8. Datu hauek guztiak ematea: Izenari buruzko datu zehatzak, ibilgailuaren datuak eta aseguru etxearenak eta ibilgailuaren nahitaezko aseguruaren poliza zenbakia.

26. Artikulua.

Zirkulazioa erregulatzeko seinaleetan edo bide publikoaren beste edozein elementutan kalteak sortzen dituzten gidaria beharturik dago udal agintaritzari horren berri emateko, ahalik eta lasterren.

27. Artikulua.

Gidaririk gabe estazionaturik dagoen edozein ibilgailuri kalteren bat sortzen duen gidaria beharturik egongo da non dagoen esaten eta ohartarazten gidariari zer kalte sortu duen eta izena ematen.

Non dagoen jakiterik ez badago, agintaritzaren agenteari adierazi behar dio.

VI. TITULUA

ARAU HAUSTEAK, SANTZIOAK, ZIGOR PROZEDURA

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK.

28. Artikulua – Araudi aplikagarria.

Zerbitzu eskumendunen jarduna argitu eta samurtzeko bakarrik, zer-nola ezarriko den jakiteko, arauen lehentasuna ezartzen da puntu hauetan.

1. Arau haustek eta zigor prozedura erregulatzeari dagokionez, hauek aplikatuko dira:
 - Ordenantza honetan datozen arauak.

- Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorrean datozen aginduak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua ezarri eta garatzeko, urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onartua.
- Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan datozen aginduak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzeko.
- 19/2001 Legea, abenduaren 19koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua berritzeko, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.
- Eusko Jaurlaritzaren agindua, 1993ko martxoaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeari buruzko jarraibideak erregulatzeko.
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 772/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuneko gaietan zigortzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.
- 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zigortzeko ahala erabiltzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duena.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren Legea, 30/1992 zenbakiduna, azaroaren 26koa.

2. Egin diren salaketa eta santzioen bilketari dagokionez, hauek aplikatuko dira:

- Ordenantza hau.
- Diru bilketako kudeaketari eta zergak eta herriko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk ikuskatzeari buruzko Ordenantza.
- Gipuzkoako Lurralde Historiaren diru bilketako erregelamendua, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak onartua.
- Zergei buruzko Foru Arau Orokorra 1/1985, urtarrilaren 31koa.

Era berean, arau horien aldaketak aplikatuko dira eta edozein kasutan, unean unean indarrean dagoen araudia.

2. ATALA. ARAU HAUSTEAK ETA SANTZIOAK.

29. Artikulua. Arau hauste eta santzioen koadro orokorra.

1. Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorra erregulatzen duen 13/1992 EDan ezarritakoaren kontrako egintzek edo omisioek, 339/1990 LED garatzen duena, 19/2001 Legeak aldatua, bai eta lege hori garatzen duten gainerako erregelamenduek ere, arau hauste administratiboen izaera izango dute eta zigortu egingo dira ordenantza honetan zehazten den eran eta neurrian, bai eta legegintzako testu horiek xedatutakoan ere, lege penaletan tipifikatutako delitu edo hutsegiteak ez badira; eta halakoetan, errua ordena juridikoz eskumendunera pasatuko da, eta ez du zigor prozedura jarraituko du, agintaritzaren bitartean.

2. Eranskinean agertzen den koadroan eta, bestetik, 2. eranskinean jasotzen ez diren arau hausteetarako lehenago aipatu diren legezko xedapenetan zehazten den kalifikazioaren arabera.

3. Arau hauste bat egitearen ondorioz beste bat edo batzuk egitea datorrenean, egin den arau hausterik larrienari dagokion santzioa baino ez da jarri behar.

4. 36 euro arteko isunez santzionatu ahal izango dira Arau hauste arinak, arau hauste larriak 92 euro arte eta baimena edo gidatzeko lizentzia aldi batez etetea hiru hilabete arte, eta arau hauste oso larriak, 302 euro arteko isunez eta baimena edo gidatzeko lizentzia aldi batez etetea sei hilabete arte.

Era berean, 92 euro eta 1.502 euro arteko santzioa jasoko dute hauek: dagokion baimen administratiborik gabe gidatzea, zirkulatzea matrikularik gabe edo Lege honetan aurreikusten diren baimenik gabe, epean eskatu barik jabeak edo ibilgailudunak ibilgailuaren transferentzia bere alde, edo zirkulatzea ibilgailu batez baldintza teknikoak betetzen ez dituenean, hauek guztiak bermatzeko: bide segurtasuna, ibilgailuen azterketa teknikoari buruzko arauen gaineko arau hausteak eta gidariei araketak egiteko zentroen edo irakas zentroen jarduerak erregulatzen dituztenak eta bide segurtasuna zuzenean eragiten dtuen industria jardueren erregimenari buruzkoak.

1.502 euro arteko isunez santzionatzen diren arau hausteek berekin eraman ahal izango dute baimena deuseztatzea urtebetez ere edo baimen hori ezereztea.

30. Artikulua. Eskumenak.

1. Udalbatzarrak eguneratu egin ahal izango du Ordenantza honetan aurreikusten diren isunen kopurua, lehen ezarri diren mugei jarraituta.

2. Arau hausteak sailkatzea arinak, larriak edo oso larriak, ordenantza honetako II. Eranskinean berariaz tipifikaturik ez daudenetan, alkateari egokituko zaio, 339/1990 Legegintzako Dekretuaren 65. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Era berean, alkateari egokituko zaio zirkulazioko arau hauste edo arauengatik jarritako santzioa.

31. Artikulua. Arau-hausteengatik dagoen erantzukizuna.

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren arau haustearen erantzukizuna du arau haustea bera egiten duenak.

2. Ibilgailuaren titularrak, hartarako behar bezala errekeritua, betebeharra du arau haustearen gidari erantzulea nor den jakiteko, eta obligazio hori betetzen badu, prozedura tramitea, justifikatutako arrazoi barik, diruz santzionatuko da hutsegite larri moduan, 92 euroko kopuruaz.

3. ATALA. ZIGOR PROZEDURA.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

32. Artikulua. Prozeduraren gardentasuna.

1. Etengabeko sarbidearen printzipioarekin bat garatuko da prozedura. Ondorio horietarako, prozeduraren edozein unetan interesdunek eskubidea dute tramitazio egoeraren berri izateko eta horietan datozen agirien kopia eskuratu eta lortzeko.

2. Izapidetzen den zigor prozedura bakoitza sistemaz egingo da, eta ordenan eta elkarren segidan gehituko dira agiriak, lekukotzak, jardunak, administrazio egintzak, jakinarazpenak eta agertzen edo egiten doazen gainerako eginbideak.

3. Horrela egindako prozedura Zerbitzuetako sailaren ardurapean zainduko da.

II. KAPITULUA. ALDEZ AURREKO JARDUNAK ETA PROZEDURA HASTEAN.

33. Artikulua. Aldez aurreko jardunak.

1. Salaketak egiteko, udaltzainek taloitegi bat izango dute, behar bezala erregularizaturik, eta Zerbitzuetako batzordeak kontrolatuko du hura.

2. Entregatu dizkieten salaketa orri guztiak izapidetu behar dituzte agenteek, eta ezingo dute deuseztatu ezin orririk; deuseztatzeko, justifikatzen duen kausa balio gabetua jasotzen duen txostena behar da.

3. Agenteek ez dute kobratuko ezin kasutan ezarritako santzioen zenbatekorik; bilketako zerbitzuaren bitartez kobratuko dira horiek, baldin eta arau hausleak egiaztatzen ez badu ohiko bizilekua Espainian duela; kasu horretan, isunaren behin-behineko kuota ezarriko du agente salatzaileak, eta zenbatekoa ordaindu edo ordainketa bermatu ezean eskubidez onartzen den edozein baliabidez, ibilgailua ibilgetuko du, hartarako dauden udal dependentzietara eramateko.

34. Artikulua. Hasteko era.

1. Ofizios hasiko du zigor espedientea alkatetzak, arau haustea izan daitezkeen gertakariak zuzenean dakien edozein pertsonak edo trafikoa zaintza eta segurtasunaz arduratzen diren agintaritzako agenteek egin dezaketen salaketa dela-eta.

2. Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legean agindutakoaren aurkako egintzengatik edo omisioengatik arau hausteak egiten direnean, 1990 LEDk onartua, zati batean 19/2001 Legeak aldaturik eta hartarako dagoen gainerako araudia, udaltzainak gertakariak salatuko ditu, eta zehaztuko ditu ustezko arau haustea egin duen ibilgailuaren identifikazioa, salatuaren izena, jakinez gero, eta gertakariaren zerranda bat, ahalik eta argien, tokia, eguna eta ordua. Ahal bada kalifikazioa eta hari legozkiokeen santzioak zehaztuko ditu, udalak onartutako arau hauste eta santzioen koadroaren arabera.

3. Salaketa orria hiru aletan egingo dira. Horietako bat salatzailearen esku geratuko da, bigarrena, ahal bada, unean bertan salatuari entregatuko zaio, eta horren berri jaso behar

da espedientean, eta hirugarrena udaltzaingoaren administrazio sailera bidaliko da, Zerbitzuetako sailera, espedientea hasteko eta instrukzioa egiteko.

4. Aurreko puntuaren jakinarazpena praktikan jartzerik ez badago, gidaria ez dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, udaltzaingoaren administrazio sailera pasatuko da salaketa lehen xedatu denaren arabera jardun dezan. Trafiko erregistroan ibilgailuaren titular agertzen den pertsonari jakinaraziko dio salaketa instrukzio egileak, ordenantza honetako 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Aurreko puntuan aipatzen den jakinarazpenean haxe jasoaraziko da, ibilgailuaren titularra gidaria ez bazen araua hautsi zenean, beharturik dagoela udalari adierazten zein zen arau hauslea hamabost eguneko epean. Halaber, ohartarazten zaio obligazio hori bete ezean, hutsegite larri moduan santzionatu daitekeela. Aldi berean, adieraziko zaio prozeduraren hasierako edukiari buruzko alegaziorik aurkeztu ezean epe berean, hastea erabaki proposamentzat jo daitekeela eta alkatetzara bideratuko dela, dagokion santzioa eman.

35. Artikulua. Salaketaren eskakizunak.

1. Agintaritzaren agenteek egindako salaketek fede emango dute, kontrako proba aurkeztu ezean, salatutako gertakariei buruz.

2. Borondatezko salaketak ahoz egin aurkeztu ahal izango zaizkie udaltzainei edo idatziz alkateari, eta aurreko artikuluan agertzen diren datuak eta gorabeherak agertu beharko dira.

Salaketa udaltzainei aurkeztuz gero, arauzko salaketa orria egingo dute, eta jasoaraziko dute horretan, Ordenantza honetan agertzen diren betebeharrez gain, berak propio egiaztatu zuen edo ez salatu den arau haustea, eta partikular salatzailearen izena eta helbidea, eta aurreko artikuluan xedatzen den eran jardun ote zuen.

36. Artikulua. Salaketa jakinaraztea.

Honela egingo da:

1. Pertsonari jakinaraztea ezinezkoa izan bada arau haustearen unean, banaka jakinarazten saiatuko da, trafiko erregistroan jasotzen den helbidean, udal artxiboetan titularrak deklaraturako beste helbide bat agertzen ez bada, eta kasu horretan azken hori erabiliko da.
2. Lehen saiakeran jakinarazpena ematerik badago, jaso izanaren txartelak hauek jasoko ditu, entrega eguna, hartzailearen sinadura eta, titularra ez bada, haren izena. Entrega egiaztatzeko txartela itzuli egin behar zaio udalari ahalik eta lasterren, tratamendu informatikoa egin ahal izateko.
3. Lehenengoz jakinaraztean ezinezkoa izanez gero entregatzea, bigarrenaz saiatuko da beste egun eta ordu batean. Bigarrenaz lortuz gero entregatzea, hauek jasoko dira jaso izanaren txartelean, aurreko paragrafoan aipatzen diren gorabeherak, eta hura udalari itzuliko zaio.
4. Bigarren saiakera ere emankorra izaten ez bada, helbidearen postontzian utziko da agiria, eta agiri horretan agertuko da hainbat alditan saiatu direla jakinarazten helbide horretan baina ez dutela erantzun, eta ediktuen bidez probintziako aldizkari ofizialean eta ezagutzen zaion azken helbidearen udalaren ediktuen taulan argitaratuko da.

5. Prozeduren iraupenaren gehieneko epean jakinarazteko obligazioa betetzat jotzeko bakarrik, nahikoa izango da jakinarazten saiatzea behar bezala egiaztatuz, 30/92 Legearen 58.4 artikulua araberaz.

III. KAPITULUA. ZIGOR PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

37. Artikulua. Salaketak izapidetzea.

1. Udaltzaingoaren bulegoan salaketa jaso eta gero, udaltzainburuak gertakarien kalifikazioa egingo du eta isunaren gradua ezarriko du edo udaltzain salatzaileak salaketan jasotako kalifikazioa eta isuna egiaztatuko ditu.
2. Gero, organo instrukzio egileari bidaliko dio, eta prozedurari ekiteko proposatuko dio edo espedientearen artxibatzeke, deuseztasuna ekar dezakeen akatsen bat duenean salaketa orriak.
3. Instrukzio egileak bidea emango dio salaketa horri edo dagokion erabakia proposatuko dio alkatetzari, arau hausterik ez dagoela deklaratu dezan, salatutako gertakariak arau haustekoak izan ez badira, edo santzioa ezartzea ez dela egokia deklaratu dezan, egilea zein den jakiterik ez dagoenean.
4. Kontuan izanik organo eskumendunek gertakariak egiaztatu ditzaketela, salaketa anonimoak artxibatu egingo dira, horri buruz gero tramiteak egin barik.

38. Artikulua. Organo instrukzio egilea.

Zerbitzuetako saila izango da zigor espedientearen organo instrukzio egilea, eta Zerbitzuetako batzordeburua izango da instrukzio egilea.

39. Artikulua. Alegazioak.

1. Bide segurtasunari buruzko Legearen 79. artikuluan aurreikusten denaren araberaz, 320/1994 EDren 12. artikuluan eta 1398/1993 EDren 16. artikuluan, abuztuaren 4koa, bidezkoztat jotzen dituen alegazioak eta agiriak egin eta aurkeztu ahal izango ditu salatuak eta, hala badagokio, bidezkoztat jotzen dituen probak proposatu, salaketa jakinarazten den egunetik 15 eguneko epean, Ordenantza honetako 36. artikuluan xedatzen denaren araberaz egina.

Baldin eta tramite horretan ibilgailuaren titularrak adierazten badu zein izen duen arau haustearen gidari arduradunak, haren kontra zuzenduko da zigor espedientearen, eta era berean jakinaraziko zaio salaketarena.

2. Salatuaren alegazioen berri, datu berririk edo salatzaileak hasieran agertutakoaz beste datu batzuk aportatzen ez badira, salatzaileari emango dizkio instrukzio egileak, gehienez ere 15 eguneko epean informatu dezan. Era berean, gertakariak aztertzeke beharrezko jotzen diren txosten eta datu guztiak errekerituko ditu.

40. Artikulua. Jabea ez den beste pertsona bati jakinaraztea.

1. Gidarien eta trafiko arau hausteen erregistroan titular moduan agertzen dela, arau haustea izan zen unean gidaria ez zela bera alegatzen duenari jakinarazten zaionean salaketarena eta, gainera, egiaztatzen badu une hartan ez zela ibilgailuaren jabea, onartu egingo da alegazioa, eta espedientearen atzera botako da, salaketaren berri eman den unera.

2. Atzera bota aurreko jardunek eten egingo dute preskripzio epea, bide segurtasunari buruzko Legearen 81. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arau hauslea nor den jakiteko da eta.

41. Artikulua. Gidaria ez den pertsona baten aurka jarraitzen denean prozedura.

Trafiko erregistroan titular moduan agertzen denari jakinarazita salaketarena, titularitateaz oztoporik jarri barik, arau haustearen unean ez zela gidaria alegatzen badu geroago, honela jardungo da:

- a) Egiatagiria ukalezina bada eta gidariaren izena adierazten bada, onartu egingo da alegazioa, eta salaketaren berri emango zaio arau hausleari.
- b) Aurreko gorabeherak izaten ez badira, alegazioa ez da onartuko.

42. Artikulua. Interesduna bertaratu ez izana alegatzen denean.

1. Interesdunak proba bat alegatu eta aurkezten duenean, arau haustearen lekuan ez dela egon araua hautsi zen unean, salatzaileari emango zaio horren berri, dagokion txostena egin dezan.

2. Txostena egindakoan, Ordenantza honetako 32.3 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, audientzia tramitea irekitzea erabakitzeko.

43. Artikulua. Proba.

1. Alegazioak jaso eta gero, gertakariak aztertu eta kalifikatzeko edo izan daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar-beharrezko den kasuetan, proba aldi bat irekitzea erabakiko du instrukzio egileak, hogeita hamar egun baino luzeagoa ez den eta hamar eguneko epea baino txikiagoa ez den epe batean, egokiak direnak praktikatzeko.

2. Akordioan, interesdunei jakinaraziko zaielarik, atzera bota ahal izango da arrazoiturik interesdunek proposatutako probak egitea, egokiak ez direnean, izan ere, gertakariekin duten loturak ezin du aldatu erabakia, ustezko arduradunaren alde.

3. Instrukzio egileak bidezkoz jotzen dituen probak egitearen berri emango zaie interesdunei, nahiko denborarekin, eta ohartaraziko zaie, hala badagokio, teknikak izendatu ditzaketela, laguntzeko interesdunei.

4. Interesdunak eskaturik, probak egin behar izanez gero eta horiek gastuak sortuz gero, Administrazioak erantzun behar ez dituenak, gastu horien aurrerakina eskatu ahal izango du Administrazioak, behin betiko likidazioaren zain, proba egin eta gero.

5. Proba hori denean administrazio organo baten edo erakunde publiko baten txostena ematea eta izapidetzeko onartzen bada, 10 eguneko epean beteko da tramite hori, xedapenen batek beste epe handiago bat baimentzen ez badu. Txosten horiek aginduzko izaera dutela ulertuko da, eta ulertu ahal izango da izaera erabakitzaila dutela prozedura erabakitzeko, eta kasu horretan, eten ahal izango dira hurrengo tramiteen epeak.

Txostena beste administrazio batek eman behar izanez gero eta epea igaroz gero txosten hura bete barik, jardunak jarraitu ahal izango dira. Epetik kanpo emandako txostena ez dago zertan kontuan izan, dagokion erabakia hartzean.

44. Artikulua. Erabaki proposamena.

1. Espedientearen instrukzioa amaitu eta gero, horretan sartuta, hala badagokio, proba egitea, instrukzio egileak Erabaki proposamena egingo du, eta horretan finkatuko ditu gertakariak eta haren kalifikazio juridiko zehatza, haien arau haustea eta zein pertsona den arduraduna zehaztuko dira, eta zein santzio jartzea proposatzen duen zehaztuko da; edota proposatuko da arau hausterik edo erantzukizunik ez dagoela adieraztea.

2. Prozeduraren instrukzioaren ondorioz, gertakariez hasieran zehaztutakoa aldatuz gero, izan litekeen kalifikazioaz, ezarri daitezkeen santzioez edo santzioa izan dezaketen erantzukizunez jakinaraziko zaio erabaki proposamenean erruduntzat jotakoari.

3. Egindako proposamenak alegazioak onartzen baditu, Diruzaintzari bidaliko zaio horren edukia berehala, diru bilketako jardunekin ez jarraitzeko.

45. Artikulua. Audientzia.

1. Prozeduraren instrukzioaren ondorioz, aldatuz gero gertakarien hasierako erabakia, haren kalifikazioa, ezar daitezkeen santzioak edo santziokoak izan daitezkeen erantzukizunak, eta edozelan ere probaldia egon denean, erabaki proposamena jakinarazi egingo zaie interesdunei, eta horrekin batera prozeduran dauden agirien zerrenda joango da, bidezkotzat jotzen dituzten kopiak lortzeko, eta 125 eguneko epea emango zaie alegazioak egiteko eta egokitzen dituzten agiriak eta informazioak aurkezteko prozeduraren instrukzio egileari.

2. Ez dago zertan egin audientzia tramitea eta, hortaz, ez da izango beharrezkoa erabaki proposamena jakinaraztea, erabaki horretan kontuan hartzen ez direnean hasierako salaketan jasotako datuak, txostenak, probak eta adierazpenak baino.

3. Agente salatzaileak emandako txostena, salaketako hitzak berresten dituela, hasieran zehaztutakoa aldatu barik ezta beste berririk gehitu barik, ez da jok –audientzia tramiterako– elementu berrizat.

IV. KAPITULUA. BUKAERA.

46. Artikulua. Erabakia.

1. Alkateak zigor erabakia emango du sei hileko epean, prozedura hasi zenetik, eta interesdunek planteatutako arazo guztiak erabakiko ditu eta horietatik datozen beste guztiak ere bai.

Edozelan ere, erabakitzeko dagoen organo eskumendunak pentsatzen duenean larritasun handiagoa duela erabaki proposamenean zehazten dena baino, erruduntzat jotakoari jakinaraziko zaio, bidezkotzat jotzen dituen alegazioak ekartzeko, eta horretarako, hamabost eguneko epea emango zaio.

2. Prozedura hasi eta 6 hilean erabakia jakinarazten ez bada, iraungi egingo da hura eta jardunak artxibatu egingo dira, edozein interesdunek edo ofizioz erabakia emateko dagoen organo eskumendunak berak hala eskaturik, kasu hauetan izan ezik: prozedura geratu bada interesdunei egotz dakiekeen kausarengatik, 320/1994 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluan aurreikusitako prozedura eten bada edo 30/92 Legearen 42.5 artikuluan aurreikusitako kausarengatik.

47. Artikulua. Isuna ordaintzea.

1. Salaketaren arabera.
 - a) Salaketarekin ados dagoela adierazten badu salatuak, salaketa egin eta hurrengo hamar egunetan ordaindu ahal izango da isunaren zenbatekoa, eta horrela %50eko murrizketa berezia izango du. Murrizketa horrekin santzioa ordaintzen bada, adostasun ekintzatzat joko da.
 - b) Geroago alegazioak aurkezten badira edo edozein errekurtsu jartzen bada, ordaindu ez den murrizketaren zenbatekoa eskatuko da.
2. Salaketaren berri eman eta gero, eta hamar eguneko epean, isunaren zenbatekoa %30eko murrizketaz kobratu ahal izango da.
3. Salaketa jakinarazten den hurrengo hamaikagarren egunetik eta santzioak irmotasuna hartu eta gero hamabost egunera arte, isuna ordaindu ahal izango da zenbateko nominalean.
4. Aurreko paragrafoan ezarritako dirua sartzeko epea amaitu eta gero, isuna ordaindu barik, premiamenduzko prozeduraren bidez ordainaraziko da, eta isunaren nominalean %20ko gainkargua likidatuko da.

48. Artikulua. Isunaren preskripzioa.

1. Arau haustek zigortzeko egintza hiru hilera preskribitzen du, arau hauste hura egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
2. Zigorrak edo santzioak, irmo egiten direnetik, urtebetera preskribitzen du.
3. Aginduak eten egingo dira salatuaren berri duen Administrazioaren edozein jardunez, bai eta haren izena, helbidea jakiteko den edozein jardunez edo jakinarazpena dakarren edozein jardunez, 36. artikuluan erregulatutako prozeduraren bidez.

V. KAPITULUA. ERREKURTSOAK.

49. Artikulua. Errekurtsuak.

1. Alkateak ezarritako santzioen aurka, errekurtsua jarri ahal izango da administrazio auzigaietako epaitegian 2 hileko epean, santzioa jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
2. Edozelan ere, aurretiaz eta aukerabidez, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.
3. Errekurtsuaren erabakia eman eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da. Epe hori igarotakoan, ezetsizat jo ahal izango da eta errekurtsua jarri ahal izango da administrazio auzigaietako epaitegian 6 hileko epean.
4. Udal diruzainak emandako premiamenduzko probidentziaren aurka, errekurtsua jarri ahal izango da alkatearen aurrean, jakinarazpena jaso zenetik hil bateko epean.
5. Premiamenduzko probidentziaren aurka egindako errekurtsuaren erabakia honetara egokituko da, udal dirubilletako ordenantza orokorrean zehazten diren irizpideetara.

6. Edozein errekurtsio jartzeak, xedapen batek kontrakoa ezartzen ez badu, ez du etengo inpugnatutako egintzaren exekuzioa, alkatetzak hala xedatzen ez badu, exekuzio horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak sortzen dituenean edo hurrengo artikuluan aurreikusten diren deuseztasun kasuetako batean oinarritzen badira.

7. Inpugnatutako egintza baliogabetzat joko da, baliogabetze eskaerari sarrera eman zaionetik 30 egun igarota, berariazko erabakia izan ez badu egintzak.

50. Artikulua. Egintzak aztertzea.

1. Ofizios berraztertze prozedurak izenekoak edozein unetan ireki ahal izango dira, norbere ekimenez edo interesdunak eskaturik, eta ofizios deklaratzeko hemen adierazten diren egintzen deuseztasuna, eta administrazio bidea bukatu duten egintzak edo epean administrazio auzigaietako errekurtsioa jarri ez direnen kontra:

- a) Babes konstituzionala izan dezaketen eskubideen eta askatasunen berezko edukia lesionatzen dutenak.
- b) Argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek emandakoak.
- c) Ezinezko eduki bat daukatenak.
- d) Arau hauste penal direnak edo haren ondorioz ematen direnak.
- e) Legez ezarritako prozedurari eta organo kolegiatuen borondatea eratzeko berezko erregelak dauzkaten araei guztiz eta erabat uko eginez emandakoak.

2. Era berean, legediaren edozein arau haustetan erortzen diren egintzak deuseztatu ahal izango dira, bai eta agintea oker erabiltzean ere.

3. Edozelan ere, formazko akatsak deuseztasuna baino ez du zehaztuko, xedea lortzeko ezinbesteko formazko baldintzarik ez duenean egintzak edo interesdunak babesik gabe uzten direnean.

4. Halaber, epetik kanpo eginez gero jardun administratiboak, egintza deuseztatzea ekarriko du bakarrik, epearen izaerak hala ezartzen duenean.

5. Egintza baten deuseztasunak edo deuseztagarritasunak, edo haren zati batek, ez du inplikaturik hurrengoena prozedura batean, edota aldeena, lehenaren independenteak direnak.

6. Ofizios berraztertze prozedura hasi eta gero, erabakitze organo eskumendunak baliorik gabe utzi ahal izango du egintzaren exekuzioa, kalte konponezinak edo konpongaitzak sortu ditzakeenean egintza horrek.

7. Era berean, edozein unetan zuzendu ahal izango ditu, ofizios edo alde batek egindako eskaeraz, akats materialak, egintzetan dauden egitatezkoak edo aritmetikoak.

BUKAERAKO XEDAPENA

1. Ordenantza honetan aurreikusten ez den gutzian, aplikatu beharrekoa den oraingo araudian xedatutakoa beteko da.

2. Baimena ematen zaio alkateari, Ordenantza hau garatu eta aplikatzeko behar dien jarraibide eta xedapenak emateko.

3. Probintziako Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratzen den unetik hasiko da indarrean sartzen eta indarrean jarraituko du derogatzeko edo aldatzeko erabakitzen ez den artean.

I ERANSKINA

IBILGAILUEN TRAFIKOA ANTOLATU ETA ERREGULATZEA ALDE ZAHARREAN.

- Proposamenak kale hauek hartzen ditu:
 - Erdiko kalea
 - Ferrerías kalea
 - Iturriotz kalea
 - Olarte kalea
 - Maisu Arano pasealekua
 - Seber Altube plaza
 - Maalako errabala kalea
- Alde zaharra oinezkoen gunea da, gaurko egunean ia-ia finkaturik, eta kalitateko urbanizazioa du eta Arrasate herriko auzo guztietako eta inguruko herrietako bizilagunek erabiltzen dute sarri-asko.
- Oinezkoen gunen horren oraingo erabilera kontrolak eta erregulazioak ez dute betetzen araudia, ibilgailuen trafikorako ezarritako sarbide ordutegiari buruz.

Proposatutako antolamendua eta erregulazioa

Proposamenak alderdi hauek hartzen ditu:

1. - Zirkulazio norabide bat ematen zaie San Frantzisko eta Olarte kaleetan; sartu San Frantziskoko errotondatik eta irten Arbolapetatik Otolara lizentziaduna kalerantz.

- Sartu eta irten lekuak aldi berean eta etengabe zabalitzen dira zamalan orduetan (07:00 – 13:00), eta ibilgailuek sartu eta irten egingo dira nahi dutenean, kasu hauetan izan ezik, Ordenantzak baimentzen dituen operazio eta ibilgailuetan.

- Sarrera eta irteera lekuak, zamalanen orduetatik kanpo, itxita egongo dira beti eta teleaginte baten bidez automatikoki ibiliko da, eta Olarte kalean dauden lurpeko garajeetako erabiltzaileak baino ezingo dira sartu.

2. - Seber Altube plaza eta Maisu Arano pasealekua oinezkoentzat izango da bakarrik; hortaz, pibote guztiak itxita egongo dira, larrialdietan izan ezik (Gurutze Gorria, Dya, ehortzetxeak, suhiltzaileak, Ertzaintza...).

3. - Alde zaharreko gainerako kaleetan, lehengo bera izango da zamalanak egiteko ordutegia, 7:00etatik 13:00 arte; edozelan ere, manuala da sarrera eta irteera leku horiek zabaldu eta itxteko sistema, ez baitu sistema elektrohidraulikorik jaso eta jaisteko. Horregati, komenigarria izango litzateke Olarte edo Maisu Aranokoen antzeko sistema bat jartzea, bolard atzera eta barneragarri batzuk, kontrolatu beharreko ataletan pasabidea itxeko:

- Maalako errabala: sarrera.

- Arrasate pasealekua: irteera.

Edozelan ere, zamalanak egin ahal izango dituzte (erosketak, behar txikiak..) oinezkoen gunean bizi direnek astean behin (ziur aski martitzenetan) 18:00etatik 21:00 arte eta horretarako bizilagunaren adierazgarria emango die Arrasateko Udalak, urtebeteko balioaz, baldintza hauek betetzen dituzten ibilgailuei:

1. Arrasaten bizi den pertsona fisikoaren jabetza izatea, udal erroldan halaxe alta emanda, eta izena emanda egotea adierazgarri hori eskatzen den gunean.

Ondorio horietarako, ibilgailuaren jabetzat joko da probintziako trafiko burutzak egindako zirkulazio baimenean halaxe jasotzen dena.

2. Bat etortzea titularraren erroldako helbidea ibilgailuaren zirkulazio baimenean datorrenarekin eta benetan bizi den helbidearekin.

3. Alta emanda egotea ibilgailua Arrasaten trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren erroldan, aurreko ataletan zehaztutako titularitatea eta helbidea bat etorrita, eta kasu horretan zerga hori ordainduta izatea.

Adierazgarria jaso nahi duenak ezingo du ordaindu barik izan Arrasateko Udalean trafiko edo zirkulazio zigorrik eskabidea egiten duenean, eta egunean egon behar du gainerako udal zerga eta obligazioetan.

4. - Bizilagun adierazgarria lortzeko, eskabidea aurkeztu beharko da behar bezala beteta, eta dokumentazio hauxe ekarri beharko da:

- Errolda agiria.
- Jatorrizko NArekin edo antzeko agiriarekin fotokopia konpultsatua, eskatzailearen gida baimena eta ibilgailuaren zirkulazio baimena.
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriaren fotokopia.
- Agirietan agertzen diren helbideak bat etorriko dira kasu guztietan.
- Udalak eskubidea erreserbatzen du beste edozein agiri proba eskatzeko, bai eta ofizioz egiteko ikerketak, eman diren datuak benetakoak diren egiaztatzeko.
- Bizilagunaren adierazgarria jasotzen duten pertsonak eurak arduratuko dira adierazgarriaz, eta Arrasateko Udalari jakinarazi beharko diote, 10 eguneko epean, helbidea aldatu edo ibilgailua aldatzen badute, dagokion adierazgarria lortze aldera, eta aurreko itzuli beharko diote eta dagokion dokumentazioa ere aurkeztu beharko diote. Galduz gero adierazgarri hori, beste bigarren bat egin ahal izango da, beti ere interesdunak sinatzen badu galdu izanaren zinpeko adierazpena.
- Arau – ordenantza hau bete ezean, aurreikusten diren zigorrez gain, bizilagunaren adierazgarria deuseztatuko da eta ez da onartuko beste berri bat egitea urtebeteko epean, hura izateko eskubidea izanez gero.

II. ERANSKINA

ARRASATE HERRIAN TRAFIKOAREN ARAU-HAUSTEAK, MOTORDUN IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURITASUNA DIRELA-ETA SANTZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAN SARTUTAKO ARAU-HAUSTEEN ETA SANTZIOEN ZERRENDA.

Artikulua	SALATUTAKO GERTAKARIA	Zenbatekoa
3.1 RGC	AXOLAGABEKERIAZ GIDATZEA.	G 92
19/2001 Legea	AUSARKERIAZ GIDATZEA.	MG 302
4 RGC	ZIRKULAZIOA, GELDITZEA EDO ESTAZIONATZEA GALARAZI EDO ARRISKUGARRI EGIN DEZAKETEN OBJEKTUAK EDO MATERIAK BOTATZEA BIDERA, UZTEA EDO LAGATZEA BIDEAN.	L 36
5.2 RGC	EZ SEINALEZTATZEA EGOKI BIDEAN SORTU DEN EDOZEIN OZTOPO EDO ARRISKU, HURA DAGOELA OHARTARAZTEKO.	L 36
19/2001 Legea	PIZTUTA DAGOEN OBJEKTUREN BAT BOTATZEA BIDERA EDO HAREN INGURUETARA, SUTEA EDO ZIRULAZIOKO ISTRIPUA SOR DEZAKEENEAN.	G 92
7.2 RGC	ZARATA ATERATZEA, KEA, GASA EDO BESTE KUTSATZAILE BATZUK ISURTZEA, ARAUZKO MUGAK GAINDITZEN DIRELA.	L 36
12.1 RGC	ZIKLOA EDO ZIKLOMOTOREA GIDATZEA PERTSONA BAT BAINO GEHIAGO DOALA.	L 36
17.1 RGC	BEHAR DEN ARRETA BARIK GIDATZEA BESTE ERABILTZAILERAK BATZUK HURBIL DIRENEAN (HAURRAK, ZAHARRAK, ITSUAK ETA EZINDUTA DAUDEN BESTE PERTSONA BATZUK.).	L 36
19/2001 Legea	ARAUZ EZARTZEN DENA BAINO ODOLEKO ALKOHOL TASA HANDIAGOAZ GIDATZEA IBILGAILUA ETA, EDOZELAN ERE, GAI SORGORGARRIAK, PSIKOTROPIKOAK ETA ANTZEKO EDOZEIN GAI HARTUTA GIDATZEA.	MG 302
19/2001 Legea	ALKOHOL, SORGORGARRI, PSIKOTROPIKO, ESTIMULATZAILE ETA ANTZEKO BESTE SUBSTANTZIA BATZUEN ERAGINEZ INTOXIKAZIO MAILA EGIAZTATZEKO EZARRITAKO ARAUZKO PROBARIK EZ EGITEA, ETA BIDEKO GAINERAKO ERABILTZAILERAK, ZIRKULAZIOKO ISTRIPUREN BATEAN INPLIKATUTA DAUDENEAN.	MG 302
19/2001 Legea	BAIMENTZEN DIREN PLAZAK BAINO %50 GEHIAGO JOATEA IBILGAILUAN, GIDARIA KONTATU BARIK.	MG 302
19/2001 Legea	BAIMENDUTAKO GEHIENENKO ABIADURA %50ETIK GORA PASATZEA, BETI ERE GAINDITZEN BADA GUTXIENEZ ORDUKO 30 KM. GEHIENENKO MUGA HORI.	MG 302
25.1 RGC	IBILGAILU BAT IBILGETZEKO ARAUA HAUSTEA, ALKOHOLEMIA PROBA EGIN ETA GERO.	MG 302
43.2 RGC	ZIRKULATZEA EZKERRALDEAN UTZI BARIK PLAZA, GLORIETA EDO BIDE TOPAGUNEAREN ERDIALDEA.	MG 302

ARRASATEKO UDALA - HERRI BARRUKO BIDEETAKO ERABILERAK, TRAFIKOA ETA SEGURITATEA ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA, TRAFIKO, MOTORDUN AUTOMOBILEN ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURITATE ARLOETAN UDALAK DUEN ZEHATZEKO AHALMENA ERE ERREGULATZEN DUENA

19/2001 Legea	ABIADURA LASTERKETA EGITEA IBILGAILUEN ARTEAN BIDE PUBLIKOAN, AGINTARI ESKUMENA DUENAK HARTARAKO MUGATUTAKO BIDEA EZ DENEAN.	MG 302
56.5 RGC	EMAN BIDEA EDO STOP SEINALE BATEZ ERREGULATUTAKO BIDEGURUTZE BATEAN BIDEA EZ EMATEA.	G 92
56.3 RGC	PASATZEN EZ UZTEA SEMAFOROEZ ERREGULATUTAKO BIDEGURUTZE BATEAN, DAGOKION ARGIAK GORRI ADIERAZTEN ZUENEAN.	G 92
57.1 RGC	PASATZEN EZ UZTEA BIDEGURUTZE BATEAN ESKUMATIK DATOZENEI.	G 92
57.1.c RGC	GLORIETA BATERA SARTZEA BIDE BIRIBILETIK DOAZEN IBILGAILUEI PASATZEN UTZI BARIK.	G 92
65.1.a RGC	EZ ERRESPECTATZEA OINEZKOEN PASABIDEAREN LEHENTASUNA, BEHAR BEZALA SEINALEZTATUTAKO PASABIDEAN.	G 92
65.2 RGC	IBILGAILU BATEZ OINEZKOEN GUNE BAT GURUTZATZEA, HANDIK DABILTZAN OINEZKOEI PASATZEN UTZI BARIK.	G 92
87.1.2 RGC	OINEZKOEN PASABIDE SEINALEZTATUTAKO PASABIDEAN AURRERATZEA.	G 92
91.1 RGC	ZIRKULAZIOA OZTOPATZEN DELA GELDITZEA	L 36
91.1 RGC	ZIRKULAZIOA OZTOPATZEN DELA ESTAZIONATZEA	L 36
94.1.a RGC	HERRI BARRUKO BIDEAN, IKUSPEN GUTXIKO BIHURGUNEAN EDO HAREN INGURUAN ESTAZIONATZEA.	L 36
94.1.b RGC	OINEZKOEN PASABIDEAN GELDITZEA.	G 92
94.1.b RGC	OINEZKOEN PASABIDEAN ESTAZIONATZEA.	G 92
91.2.i RGC	GARRAIO PUBLIKORAKO LEKUAN GELDITZEA (BUS – TAXIS)	G 92
91.2.i RGC	GARRAIO PUBLIKORAKO LEKUAN ESTAZIONATZEA (BUS – TAXI)	G 92
91.2.g RGC	ZAMALANAK EGITEKO ERRESERBA GUNEAN GELDITZEA.	L 36
91.2.g RGC	ZAMALANAK EGITEKO ERRESERBA GUNEAN ESTAZIONATZEA.	L 36
94.1.f RGC	BESTE ERABILTZAILA BATZUK MANIOBRAK EGITEKO BEHARTZEN DITUZTEN LEKUAN GELDITZEA.	L 36
94.1.f RGC	BESTE ERABILTZAILA BATZUEI IKUSPENA GALARAZTEN ZAIEN LEKUAN ESTAZIONATZEA.	L 36
94.1.f RGC	BESTE ERABILTZAILA BATZUK MANIOBRAK EGITEKO BEHARTZEN DITUZTEN LEKUAN ESTAZIONATZEA.	L 36
94.2 RGC	BIGARREN ILARAN ESTAZIONATZEA.	L 36
91.2.b RGC	BEHAR BEZALA ESTAZIONATUTA DAGOEN BESTE IBILGAILU BATI GALARAZTEN DIOZULA GELDITZEA.	L 36
91.2.b RGC	BEHAR BEZALA ESTAZIONATUTA DAGOEN BESTE IBILGAILU BATI GALARAZTEN DIOZULA ESTAZIONATZEA.	L 36
91.2.c RGC	INMUEBLE BATEKO SARRERA EDO IRTEERAKO PASOA	G 92

	ERABILTZEA OZTOPATZEN DUELA GELDITZEA.	
91.2.c RGC	INMUEBLE BATEKO SARRERA EDO IRTEERAKO PASOA ERABILTZEA OZTOPATZEN DUELA ESTAZIONATZEA.	G 92
91.2.d RGC	EZINDU FISIKOENTZAKO EGOKITUTAKO PASABIDEEN ERABILERA OHIKOA OZTOPATZEN DUELA GELDITZEA.	G 92
91.2.d RGC	EZINDU FISIKOENTZAKO EGOKITUTAKO PASABIDEEN ERABILERA OHIKOA OZTOPATZEN DUELA EZTACIONATZEA.	G 92
19/2001 Legea	BIDEAN OBRAK EGIN ETA SEINALEZTATZEA BAIMEN BARIK ETA BETIKO EDO NOIZEAN BEHINGO SEINALEAK KENDU EDO HONDATZEA.	G 92
19/2001 Legea	ARGI BARIK ZIRKULATZEA IKUSPENIK EZ DAGOENEAN EDO MURRIZTU DENEAN EDO BIDEKO BESTE ERABILTZAILA BATZUK ITSUTZEN DITUENEAN GIDARIAK.	G 92
104.a RGC	MOTOZIKLETA BATEKIN ARAUZKO ARGIAK PIZTU BARIK ZIRKULATZEA EGUNEZ.	L 36
116.1 RGC	SEGURTASUN UHALA EZ ERABILTZEA.	L 36
118.1 RGC	EZ ERABILTZEA BABES KASKO HOMOLOGATUA MOTOZIKLETA ETA ZIKLOMOTOREEN GIDARIEK EDO BIDAIAK.	L 36
121.5 RGC	EDOZEIN IBILGAILUREKIN ZIRKULATZEA OINEZKOEN GUNETIK EDO ESPALOITIK.	G 92
129.1 RGC	TRAFIKO ISTRIPU BAT IKUSI EDO HARTAN INPLIKATURIK EGOTEA ETA EZ LAGUNTZEA BIKTIMEI EDO HAIENTZAKO LAGUNTZARIK EZ ESKATZEA.	G 92
130.1 RGC	IBILGAILU BATEKIN KALTZADA OZTOPATZEA, ISTRIPU EDO MATXURA BATEN ONDORIOZ, ETA HURA EZ SEINALIZATZEA BEHAR BEZALA.	G 92
132.1 RGC	BETEBEHAR SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (NAHITAEZKO NORANZKOA)	G 92
155 RGC	BETEBEHAR SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (JIRATZEKO NORANZKOA – NORABIDE BAIMENDU BAKARRA)	G 92
152 RGC	DEBEKU SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (NORABIDE DEBEKATUA)	G 92
154 RGC	DEBEKU SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (BIRA DEBEKATUA EZKERRALDERA, ESKUMARA, ITZULBIDEA, APARKALEKU DEBEKATUA)	G 92
151 RGC	DEBEKU SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (STOP)	G 92
153 RGC	DEBEKU SEINALE BATI JARAMONIK EZ EGITEA (SARTZEA DEBEKATURIK, PISU MUGATUA)	L 36
143 RGC	UDALTZAINAREN SEINALEEI JARAMONIK EZ EGITEA (GELDITZEKO SEINALEA).	MG 302
143.2d RGC	UDALTZAINAREN SEINALEEI JARAMONIK EZ EGITEA (ABIADURA MOTELTZEKO SEINALEA).	MG 302
142.1 RGC	ARAUZ KONTRA DOAZEN EDO HONDATUTA DAUDEN SEINALEAK KENTZEKO EDO ALDATZEKO AGINDUA EZ BETETZEA.	L 36

142.2 RGC	SEINALEA JARRI EDO KENTZEA BIDE BATEAN, BAIMEN BARIK EDO JUSTIFIKATUTAKO ARRAZOI BARIK.	G 92
142.3 RGC	KARTELAK, MARKAK EDO BESTE OBJETU BATZUK JARTZEA SEINALEETAN, IKUSTEA MURRIZTU EDO NAHASTEA ERAGIN DEZAKEENEAN.	G 92
72.3 RGC	ARAU-HAUSTEAREN GIDA ARDURADUNA EZ IDENTIFIKATZEA IBILGAILUAREN TITULARRAK, HARTARAKO ESKATZEN ZAIONEAN.	MG 302
7. OM	IBILGAILU TRAKTORETIK BANANDUTAKO ATOIA BIDE PUBLIKOAN ESTAZIONATZEA.	G 92
10.2 OM	GELDITZEA DEBEKUA DEN LEKU BATEAN ESTAZIONATZEA.	G 92
5.2. OM	BAIMENA DUTEN EKINTZETARAKO EDO KONPONDU EDO GARBITZEKO OKUPATU BEHAR DEN GUNEAN ESTAZIONATZEA, DEBEKU HORREN BERRI EMAN DENEAN.	G 92
5.3 OM	1. ERANSKINEAN HARTARAKO ERREGULATUTAKO OINEZKOEN GUNEAN ESTAZIONATZEA.	G 92
10.2.7 OM	SEINALEAK DEBEKUA JARTZEN DUEN LEKUAN GELDITZEA.	G 92
17.1 OM	SEINALEAK DEBEKUA JARTZEN DUEN LEKUAN ESTAZIONATZEA.	G 92
11.5 OM	PASABIDEREN BATEN AURREAN ESTAZIONATZEA.	G 92